

Ekonomia berdeak

Ekainaren 5ean Nazioarteko Ingurumen Eguna ospatuko da. Krisiaren testuinguruan, ekonomia hartu du Nazio Batuen Erakundeak egunaren ardatz, eta “ekonomia berdea” proposatu du aurtengo gai gisa. Hain justu, langai hori bera izango dute hizpide hil honetan bertan egingo duten Biltzar Nagusian. Rio+20 izendapena jaso du, eta, 1992an Rio de Janeiron egindakoaren pare, mugarrizatea nahi du Nazio Batuen Erakundeak (NBE).

Hogei urte barru izan nahi dugun munduarentzako ildoak zehazteko aukeratzat jotzen du NBEk ekaineko biltzarra, eta han aurkeztuko du etorkizuneko mundu horretara iristeko bere proposamena: ekonomia berdea. NBERen definizioaren arabera, pertsonen ongizatea eta berdintasun soziala hobetu, eta, aldi berean, ingurumen-arriskuak eta urritasun ekologikoak gutxiagotzen dituen ekonomia da ekonomia berdea.

Balio horien bidez gobernatutako etorkizuna sortzeko zenbat diru eta zein arlotan inbertitu behar den aurreikusi du NBEk: munduko barne-produktu gordinaren % 2 urtean, 2050era arte. Eta, Nazio Batuen eskeman, bitarteko erabakigarriak izango dira teknologia eta haren garapena.

Riotik honainoko bidez egiten duen gogoetak toki gutxi uzten dio, ordea, baikortasunari. Izan ere, NBERen esanean, kapitala gaizki bideratzeak ekarri ditu orain bizi ditugun krisiak: ondasunetan, erregai fosiletan eta finantza-aktiboetan jarri da, eta ez energia berriztagarrietan, eraginkortasun energetikoan edo nekazaritza jasangarrian.

Gauzak horrela, krisi ekonomikoa nahikoa izango da hurrengo hogei urteetan bestela jokatu dela pentsatzeko? Ekonomia berdearen kritikariek ezetz uste dute. Haien esanean, ekonomia berdea ez da huts egin duen ekonomia jasangarriaren aldaera bat besterik, eta, NBERen proposamena, sintomak arintzeko errezeta. Ekonomiaren paradigma bera aldatzeko aldarria egiten dute, ekosistema osoa aintzat hartuko duen beste baten alde, teknologien garapenak edozein direlarik ere, definiziotik bertatik egiten duelako huts egungoak.



SAREAN+

**Eider Carton Virto**

*Elhuyar Zientzia
eta Teknologia
aldizkariaren
zuzendaria*

**Arizonako olatua**

Arizonako iparraldean, desertuaren erdian, Coyote Buttes izeneko hareharrizko muinoen artean dago The Wave edo “olatua” deitzen zaion leku ikusgarri hau. Euriak eta haizeak hareharri marradunearn higatutako bihurtune leun eta koloretsuak.

16



22

**EKONOMIA BERDEA
asmoa eta kritikak**

Ekonomia berdea da Ingurumenaren Nazioarteko Egunerako Nazio Batuen Erakundeak (NBE) proposatu duen gaia. Alabaina, ekonomialari eta aditu asko oso kritiko dira proposamenarekin, batez ere, ez zaielako nahikoa iruditzen. Haien ustez, aldaketak sakonekoa izan behar du, eta, horretarako, beste ekonomia berde bat aldarrikatzen dute.

ALAN TURING **100** urte

Makinei bizia eman zien pertsona **38**

Munduari begiratzeko beste modu bat zuen, eta begietara ez begiratzeko modu arraro bat. Gizon isila zen, eta hitz egitean ahots mehez eta totelka egiten zuen. Edo, bat-batean, axolagabeki eskerrak eman eta atetik kanpora ihes egiten zuen. Jeinu eszentrikoaren fama zuen. Lankideek miretsi egiten zuten.

Informatikak zor diona **40**

Alan Turingek oinarri sendo bat utzi zuen hurrengo belaunaldientzat, ordenagailuak egin ahal izateko. Urteetan isilduta egon da Turingen meritua, baina pixkanaka argira ateratu da.



20

Internet legearen mehatxupearan

Internet nahiko arau gabeko lurraldea izan da orain artean. Baina, azken urteetan gobernu eta bestelako lobbyak Internetentzat berariaz egindako legeak ari dira bultzatzen. Interneten beraren izaera arriskuan jartzten duten legeak dira eta eskubide oinarrizkoen aurka doazenak.



34

ELKARRIZKETA

Kepa Altonaga Zoologoa eta idazlea

Kepa Altonaga ikertzailea da, zoologoa. Baina, haren esanean, gai bati buruzko ikerketa bera bezainbeste interesatzen zaio ikerketa jakin horren inguruko garaia, pertsonak eta pentsaerak ikertzea. Eta horixe frogatzen dute idatzitako liburuek.



SAREAN+

4 FLASHA
Discoveryren azken hegaldia

6 ALBISTEAK

16 MUNDU IKUSGARRIA
Arizonako olatua

20 MUNDU DIGITALA
Internet legearen mehatxupearan

22 **EKONOMIA BERDEA: ASMOA ETA KRITIKAK**

24 **Asmoa, ekonomia berdetzea**

28 **Beste ekonomia berde bat aldarri**

34 ELKARRIZKETA
Kepa Altonaga

38 ISTORIOAK
Alan Turing, makinei bizia eman zien pertsona

40 **Informatikak zor diona**

44 LIBURUTEGIA
Alan Turingen biografiak

45 SATORRAK ILARGIAN

ANALISIA

46 **Amnesia elektronikoa**
COSIMA DANNORITZER

49 GAI LIBREAN
Ekotoxikologia: matematika ingurumenaren erreskatera
JOSUNE URIEN ETA
RODRIGO GIL MERINO

54 ASTRONOMIA

56 HURRENGO ZENBAKIAN